

**EUSKALTZAINDIA ERAKUNDERA BISITA**
VISITA A EUSKALTZAINDIA-REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

2024-06-13 Bilbao 13-06-2024

Lehendakariaren hitzaldia- Discurso del Lehendakari

Euskaltzainburua eta Euskaltzaindiako zuzendaritza kideok, euskaltzainok, sailburu ordea, egun on eta eskerrik asko zuen gonbidapenagatik eta zuen lanildo eta helburu nagusiak zuen etxean bertatik bertara ezagutzeko aukera emateagatik.

Etxean nago. Etxean nagoela sentiarazi nauzue hemen zuekin izan naizen bakoitzean. Eskerrik asko!

Gogoan dut 2013garren urtea.

Euskaltzaindiak “Europako Hiritarren Saria” jaso zuen. Urteetan zehar egindako lanari emandako aitortza izan zen eta merezimendu osoz jaso zenuten.

Euskara Europako hizkuntza zaharrenetakoa zela bagenekien. Sari hari esker, euskarak, Europak bezala, “mugarik ez duela” erakutsi zenuten.

Harrez gero bide horri jarraitu diozue. Gaurko bisita izan da horren erakusgarri.

Gogoan dut, baita ere, Euskaltzaindiaren mendeurrena. Edo euskararen batasunaren oinarriak finkatu zituen Arantzazuko bilkuraren 50garren urteurrena.

Euskararen akademia sortu zen momentutik bertatik jardun duzue “euskara ehuntzen” eta horretan diharduzue.

Euskaltzaindia da euskara kontuetan gure erreferentzia nagusia. Horrela dago jasota Gernikako Estatutuan, eta aitortza hori egiten dizuegu herri agenteen izenean.

Gure Erkidegotik kanpo ere Euskaltzaindiak ematen dio osotasuna eta bermea gure hizkuntzaren aniztasunari eta batasunari. Euskal Herri osoko erakunde eta herritar guztiok gauzkazue zuen irizpideen esanetara.

Amaitzeko, bi hitz besterik ez: “ekin eta jarrai”.

Lehendakari naizen aldetik, eta Eusko Jaurlaritzaren izenean, urte hauetan guztietan egin duzuen lana, lankidetzarako erakutsi duzuen prestutasuna eta gure Herriari egin diozuen ekarpena eskertzen dizuet.

“Ekin” duzue eta emaitzak bistan dira. “Jarrai” ezazue, euskarak merezi du eta.

Bihotz bihotzez, eskerrik asko!